

EL AYUNTAMIENTO RECORTA EL SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA EN MATERIA DE DISCAPACIDAD

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y *eginaren eginez* tienen suscrito desde el año 2007 un convenio de colaboración en materia de reconocimiento y defensa de los derechos de las personas con discapacidad, dirigido al mantenimiento de un servicio de **Asesoría Jurídica**.

Por medio de este servicio, se presta atención y asesoramiento en cuestiones **legales y jurídicas**, tanto a la **asociación** –como entidad representativa de la población con discapacidad física–, como a las propias personas del colectivo *-para quienes la interpretación de las diversas normas y hacer valer nuestros derechos, suele resultar una tarea complicada, debido a la complejidad de los textos y de los procesos para exigir su cumplimiento, y a la ciudadanía en general (son innumerables las comunidades de propietarios/as, profesionales de diferentes sectores, responsables de empresas, agentes sociales, etc., que han recibido orientación en esta materia).*

A través de la prensa local hemos conoci-

UDALAK MURRIZTU EGIN DU DESGAITASUN- GAJETARAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA

Gasteizko Udalak eta *eginaren eginez* elkarteak lankidetz hitzarmen bat sinatu zuten 2007an, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aitorpena eta defentsa bermatzearren **Aholkularitza Juridikoko** zerbitzu bat emateko.

Zerbitzu horren bitartez, arreta eta aholkularitza **legala** nahiz **juridikoa** eskaintzen zaie bai **elkarteari** –*desgaitasun fisikoak dituzten biztanleen entitate ordezkaria den aldetik*–, bai kolektiboko **pertsoneri** –*araudiak interpretatzea eta gure eskubideez baliatzea zaila zaigunoi, testuak zailak izaten direlako eta arauak betearaztea exijitzeko prozesuak ere konplexuak direlako*– bai eta **herritar orori ere** (asko dira gai honen inguruan orientazioa jaso dutenak: jabekideen komunitateak, hainbat sektoretako profesionalak, enpresa-arduradunak, gizarte-eragileak eta abar).

Bertako prentsaren bidez jakin dugu udalbatzak 2021erako adostutako aurrekontue-tan %30 murriztu duela desgaitasun-gaie-

do que en los presupuestos acordados por la corporación municipal, para el año 2021, se ha efectuado un recorte en la financiación del convenio de Asesoría Jurídica en materia de discapacidad de un 30%, lo cual se traduce en la minoración en 10.000 € de la cantidad destinada.

En *egínaren egínez*, hemos recibido esta decisión del gobierno municipal de Victoria-Gasteiz con asombro, generándose un profundo malestar y sensación de indefensión, más aun teniendo en consideración la actual situación generada por la pandemia del Covid-19 y la grave crisis sanitaria, social y económica a la que se enfrenta el conjunto de la sociedad, pero que tiene una especial incidencia en colectivos como el nuestro.

Hemos experimentado y comprobado como en situaciones como las producidas por la pandemia y sus consecuencias, se acentúa la interacción de los factores que generan situaciones de vulneración de derechos, discriminación y exclusión social. Las consecuencias de este contexto se han manifestado en las diferentes fases de una realidad cambiante, es decir, tanto en los primeros momentos de confinamiento, como el posterior proceso de desescalada que desembocó en la denominada “nueva normalidad”, así como en el nuevo escenario marcado por los rebotes.

En este marco, la pandemia derivada del Covid-19 ha generado una situación de riesgo para los derechos reconocidos en la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, poniendo de manifiesto asimismo la necesidad de impulsar políticas transformadoras alineadas con la propia Convención.

Desde el inicio de la pandemia *egínaren egínez* ha asumido el compromiso de impulsar su labor habitual de representación de las personas con discapacidad física, de incidencia política y pública en la adopción de medidas, y especialmente de defensa y promoción de los derechos reconocidos en la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad.

tarako Aholkularitza Juridikoko zerbitzuaren finantzaketa; hau da, 10.000 € gutxiago emango du zerbitzu horretarako.

egínaren egínez elkartean harriduraz jaso dugu Gasteizko udal-gobernuaren erabaki hori, eta ondorez handia eta babesgabetasun-sentsazioa sortu digu, are gehiago kontuan hartuta zer-nolako egoera dugun gaur egun Covid-19aren pandemiaren ondorioz eta zer-nolako krisi sanitario, sozial eta ekonomiko larria bizi dugun; izan ere, krisi horrek gizarte osoan eragin badu ere, are inpaktu handiagoa izan du zenbait kolektibotan, besteak beste gurean.

Geure larruan bizi eta egiaztatu dugunez, eskubideen urraketa, diskriminazioa eta gizarte-bazterkeria eragiten duten faktoreen elkarrekintza areagotu egiten da pandemia-egoeretan eta pandemiaren ondorioek sortutako egoeretan. Testuinguru horren ondorioak agerian gelditu dira errealitate aldakor honen fase desberdinetan zehar; hau da, bai konfinamenduaren hasierako uneetan, bai “normaltasun berria” deitu zaion ondorengo deskonfinatze-prozesuan, eta bai birusaren agerraldi berriek markatutako egoera berrian.

Testuinguru honetan, Covid-19aren pandemiak arriskuan jarri ditu Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Hitzarmenean aitortutako eskubideak. Agerian utzi du, halaber, Hitzarmenarekin bat datozen politika eraldatzaileak sustatu behar direla.

egínaren egínez elkarteak pandemiaren hasieratik hartu du konpromisoa bere ohiko jarduna sustatzeko, hala nola desgaitasun fisikoa duten pertsonen ordezkari izatea, neurriak hartzean eragin politikoa eta publikoa izatea eta, bereziki, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Hitzarmenean aitortutako eskubideak defendatzea eta sustatzea.

Zirkunstantziak gorabehera, *egínaren egínez* elkarteak orientazioko eta esku-hartzeko lanekin jarraitu du, desgaitasun fisikoa duten pertsonen informazioa emateko eta parte hartzeko egindako eskaerei

A pesar de las circunstancias, *egínaren egínez* ha continuado con su tarea de orientación e intervención ante las demandas de información y actuación por parte de las personas con discapacidad física, prestando una especial atención a la labor de información y asesoramiento, sobre las medidas adoptadas en el marco de la pandemia, que pudieran tener incidencia en los derechos y la calidad de vida de las personas con discapacidad. A su vez, la asociación no ha descuidado su actividad habitual, continuando presente y activa en los diferentes órganos de participación y consulta en los que se abordan las políticas y actuaciones en materia de discapacidad.

Además de las mencionadas acciones, y con el objeto de dar visibilidad y voz a las personas con discapacidad en un adverso contexto social y político que obvia a este colectivo, *egínaren egínez* ha mantenido su servicio de Asesoría Jurídica, del que dio cuenta en un informe de actividad de la Fase 0, que fue requerido en su momento, y en la Memoria de Actividades del año 2020.

De esta forma, *egínaren egínez* ha mantenido su compromiso en la defensa de los derechos y la mejora de la calidad de vida de las personas con discapacidad física de Álava, proponiendo y fomentando un modelo social en el que la diversidad sea considerada un agente activo que aporta valor al conjunto de nuestra sociedad.

A pesar de todo lo expuesto, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ha decidido recortar el convenio de Asesoría Jurídica, disminuyendo de facto la capacidad de acción de la asociación en defensa del respeto y cumplimiento de la normativa que protege y garantiza los derechos humanos de las personas con discapacidad del municipio de Vitoria-Gasteiz.

Denunciamos esta situación y reivindicamos la restitución íntegra del Convenio de Asesoría Jurídica, para seguir luchando por nuestros derechos.

erantzunez. Eta arreta berezia jarri du pandemiaren testuinguruan hartu beharreko neurriei buruz informazioa eta aholkularitza ematen, neurri horiek desgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eta bizi-kalitatean eraginik izan ez dezaten. Era berean, elkarteak bere ohiko jarduerari eutsi dio, desgaitasunaren inguruko politikak eta jardunak lantzen dituzten parte-hartzezko eta aholkularitzako organoetan egoten eta aktiboki parte hartzen jarraitu baitu.

Aipatutako ekintza horiez gain, eta kontuan hartuta egungo testuinguru sozial eta politikoan desgaitasuna duten pertsonak alde batera utzita daudela, *egínaren egínez* elkarteak Aholkularitza Juridikoko zerbitzua mantendu du, kolektiboari aurkako testuinguru honetan ikusgarritasuna bermatu eta ahotsa eman nahian. Hain zuzen ere, elkarteak zerbitzu horren jardunaren berri eman zuen, bai 0 Faseko jarduera-txostenean (une hartan hala eskatuta), bai 2020ko Jardueren Memorian ere.

Hala, *egínaren egínez* elkarteak irmo eutsi dio bere konpromisoari, hau da, Araban desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoari. Eta horretarako, aniztasunari buruz bestelako ikuspegi bat izango duen gizarte-eredu bat proposatzen eta sustatzen jarraitu du; alegia, gizarte osoari balioa ematen dion eragile aktibotzat har dadin aniztasuna.

Azaldutakoa gorabehera, Gasteizko Udalak Aholkularitza Juridikoaren hitzarmenean murrizketa bat egitea erabaki du. Horren ondorioz, elkartearen ekintzarako gaitasuna ere murriztu du, hau da, Gasteizen desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak babesten eta bermatzen dituen araudia betearazteko eta errespetarazteko gaitasuna murriztu dio elkarteari.

Egoera hori salatu, eta Aholkularitza Juridikoaren Hitzarmena osorik leheneratzeko eskatzen dugu, gure eskubideen alde borrokan jarraitu ahal izan dezagun.

RECURSO CONTRA LA OPE DEL AYUNTAMIENTO

egínaren egínez ha interpuesto recurso contencioso administrativo contra los Acuerdos de la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de 2018 y 2019, aprobatorios de las ofertas de empleo público de puestos pertenecientes a grupos C1, C2 Y E (C, D Y E), por infracción de cupo de reserva del 7% de las plazas en las ofertas de empleo público a favor de personas con discapacidad.

Las OPEs aprobadas infringen el artículo 59.1 del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (EBEP), por cuanto que la reserva de plazas a favor de personas con discapacidad no alcanza el porcentaje del 7% establecido en la norma (la de 2018 se queda en el 6,91% del total de plazas y la de 2019 en un 5,65%, lo que supone una infracción de la citada norma).

El cupo de reserva se puede mejorar (*lo que además es en todo caso deseable, dada la especial dificultad que las personas con discapacidad tenemos para acceder a un empleo*), pero no se puede establecer una reserva inferior al citado 7% del total de las plazas convocadas.

UDALAREN LAN ESKAINNTZA PUBLIKOAREN (LEP) AURKAKO HELEGITEA

egínaren egínez elkarteak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du, Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2018ko eta 2019ko lan-eskaintza publikoa onartzeko egindako akordioen aurka, C1, C2 eta E (C, D eta E) taldeetako lanpostuak direla eta. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen alde lan-eskaintza publikoetan erreserbatu beharreko plazen kupoa (%7koa) urratzen du.

Onartutako LEPe urratu egiten dute Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 59.1 artikulua. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen aldeko plaza-erreserba ez da iristen arauan ezarritako %7ra (2018koan, plaza guztien %6,91 erreserbatzen da, eta 2019koan, %5,65; beraz, araudia urratzen dute).

Erreserba-kupoa hobetu egin daiteke (gainera, horixe nahi dugu guk, desgaitasuna dugun pertsonok enplegua lortzeko ditugun zailtasunak direla eta), baina deialdi batean ezin da plaza guztien %7 baino gutxiago erreserbatu.

RECURSO CONTRA LA CONVOCATORIA DEL BONO TAXI 2021

egínaren egínez ha formulado recurso de reposición frente a la “Convocatoria anual de las ayudas, dirigidas a personas con problemas de movilidad, para la utilización del servicio de taxi como medio alternativo de transporte” aprobada por el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, por considerar que determinados requisitos establecidos por dicha Convocatoria, y en concreto, una de ellas, chocha frontalmente con la consecución de una vida independiente, resultando contraria al principio de igualdad, y por tanto, nula: se exige que las personas que tengan reconocido un grado III de dependencia no ocupen plaza de forma permanente en una residencia para poder acceder a la ayuda.

Esta exigencia implica que personas con el mismo grado de dependencia, con la misma movilidad reducida, y por tanto, con la misma necesidad de acceder a la ayuda (por encontrarse en dificultad o imposibilidad de hacer uso del transporte público colectivo), sean tratadas de forma diferente por la única razón de donde tengan

2021EKO BONO-TAXIAREN DEIALDIAREN AURKAKO HELEGITEA

egínaren egínez elkarteak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak onartutako deialdi baten aurka; zehazki, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonek taxi zerbitzua garraibide alternatibo gisa erabiltzeko laguntzen urteko deialdiaren aurka. Izan ere, bertan jasotzen diren baldintzak, bereziki horietako bat, ez dator bat bizimodu independentea lortzearekin, berdintasun-printzipioaren aurka doa, eta, beraz, baliogabea da: III. mailako menpekotasuna aitortu zaien pertsonek plaza iraunkorra badute egoitza batean, ezin izango dute laguntza jaso.

Eskakizun horren arabera, hortaz, menpekotasun-maila bereko pertsonek, mugikortasun murriztu berbera izanik eta, beraz, laguntza jasotzeko behar berbera izanik (garraibide publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasunak edo ezintasuna dutelako) traetaera ezberdina jasoko dute arrazoi bakar



fijado su domicilio. Situación que puede ser generadora de desigualdad dentro del propio colectivo de personas con movilidad reducida.

Indicar, al respecto, que el transporte privado de los residentes no forma parte de los servicios que se ofrecen (de forma general) por las residencias, ni ocupar plaza permanente en una residencia implica una limitación de movimientos de la persona residente.

El Instituto Foral de Bienestar Social ha desestimado nuestras pretensiones, pero seguiremos luchando para conseguir restituir aquellas ayudas que contribuyen a facilitar la vida autónoma e independiente de las personas con discapacidad física, estando a estos efectos abierta la vía para formular el correspondiente recurso ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de Vitoria-Gasteiz.

batengatik: non duten finkatuta bizilekua. Horrek desberdinkeria eragin dezake mugikortasun murriztua duten pertsonen kolektiboan bertan.

Esan beharra dago, horri dagokionez, egoiliarren garraibide pribatua ez dela egoitzek eskainitako zerbitzuen parte (oro har), eta bestalde, egoitza batean plaza iraunkor bat izateak ez duela esan nahi egoiliarrek mugikortasuna mugatua duenik.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ez ditu aintzat hartu gure nahiak, baina berron jarraitzen dugu desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizitza autonomo eta independentea errazteko laguntzak itzul daitezen. Asmo horrekin, dagokion errekurtoa aurkezteko bidea irekita dago Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan.



Plaza Simón Bolívar plaza, 9 bajo/behea

01003 VITORIA-GASTEIZ

Tfno./Fax: 945 225516

info@eginez.org

www.eginez.org • www.ponteenmilugar.eu



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava